

ZEHARKATZEN GAITUENA



DAITEKE
consultoria social
gizarte aholkularitza

2. Ezetz asmatu!

Munduaren eraikuntza ikuspegi maskulinoak, androzentrismoak, pentsamendu zientifikoa, filosofikoa, historikoa, erlijiosoa eta politikoa txertatzen du duela milaka urtetik hona... Zenbateraino uste duzue androzentrismoak, begirada zisheteropatrariarkalak, zeharkatzen gaituela?

Esaterako, jakingo zenuke 3 gizon margolarien izenak? eta 3 emakume margolarienak? eta 3 gizon zientzialarien izenak? eta 3 emakumerenak? edota 3 gizon lehendakari? eta 3 emakume?



2. Ezetz asmatu!

Orain galdera batzuk aurkeztuko dira, aurretik azaldutakoarekin zerikusia dutenak. Emaitzak galderen ostean ikusi ahalko dituzu, Ea guztiak asmatzeko gai zaren!

1.GALDERA: Zein da komunitate zientifikoko emakumeen ehunekoa?

- A. %50
- B. %47
- C. %39
- D. %12

2.GALDERA: Noiz hartu zuen aintzat Medikamentuaren Europako Agentziak gidetan sexuaren araberako emaitzak bereizteko beharra?

- A. 1970
- B. Beti hartu izan du kontuan
- C. Oraindik ere ez dira kontuan hartzen
- D. 2006.urtean

3.GALDERA: Infarto baten sintomak berdinak dira gizonengan eta emakumeengan?

- A. Bai, guztiz berdinak dira
- B. Bai, berdinak dira, baina emakumeenak beste batzuk zirela uste zuten
- C. Guztiz desberdinak dira
- D. Sintoma batzuk berdinak dira, beste batzuk ordea oso ezberdinak

2. Ezetz asmatu!

4. GALDERA: Zein urtetan atera zuten homosexualitatea gaixotasun mentalen listatik (DSM)?

- A. 1990.urtean
- B. 2000.urtean
- C. 1980.urtean
- D. Oraindik ere gaixotasun mentaltzat jotzen da

EMAITZAK

1.GALDERA: C

Medikuntza historikoki egon da eta oraindik gizonek kontrolatzen due eta, beraz, haientzat pentsatuta dago. Beti azertu den gorputza, gaur egun ere gehienbat saiakuntza klinikoetan eta ikerketa medikoan, oro har, aztertzen dena, maskulinoa da.

Gizonaren gorputza aztertzea, pertsona guztiak gorputza aztertzeke oinarri bezala hartu izan da eta honek ondorioak ditu.

2.GALDERA: D

Kaliforniako unibertsitatean egindako ikerketa batean 2.000 artikuluko zientifiko azertu zituzten. Ondorioztatu zen 10 ikerketetatik 8tan ez zeudela emakumeak eta hauen ordezkapena ez zela nahikoa.

Espezializatutako aldizkari batean 1996tik 2005era argitaratutako artikuluko zientifiko guztiak aztertuta, ikusi zen gizakiak ez ziren animaliekin egindako azterketen %79k subjektu maskulinoak baino ez zituztela erabili.

2. Ezetz asmatu!

3.GALDERA: D

Emakumeek %50eko aukera dute lehen bihotzekoak hiltzeko; gizonek berriz, %30ekoa.

Emakumeek bikotzeko gutxiago jasaten ditu baina gehiago hiltzen dira hauengatik.

Sintomak: ikerketa askok frogatu dute gizonek eta emakumeek ez dituztela beti sintoma berberak izaten bihotzeko baten aurrean. Izan ere, emakumeengan askoz maizago gertatzen diren zenbait zeinu bereiz daitezke.

Emakumeen kasuan bularreko mina ere ematen bada, askotan, buruko mina eta tripako mina, ondoezina izaten da.

4.GALDERA: A

1990.urtean homosexualitatea atera zuten DSM liburutik eta 2018an berriz, transexualitatea gaixotasun mentala kontsideratzeari utzi zion OMSen.